

# LURRA, LANA, JANA. ETORKIZUNERAKO PROIEKTUA MARTXAN

GURPIDE, Larrabetzuko baserriarren eta kontsumitzaileen elkarteak, 2009tik dabil gure herrian beharrezko herriko lehen sektorea bultzatzen, ekonomikoki, ekologikoki eta sozialki sostengarria izan dadin.

Helburu zehatz eta argi bi izan ditu bere jardunaren hasieratik. Batetik, baserriar berriak martxan jartzea eta, horrekin batera, bertan ekoiztutako nekazaritza produktu agroekologikoen kantitatea handitzea: "Bertokoa Indartuz" hondakin organikoaren biltzea eta konpostatzea da baserriarren bizimodua duintzeko eta luraren osasuna lortzeko bide garrantzitsu bat. Eta, bestetik, bertoko produktuen salmenta zuzena indartzea, besteak beste, Larrabetzuko eskolako jantokia bertan ekoiztutako elikagai agroekologikoen hornitzea, "Otzara" produktuen etxeko banaketa, urriko azoka, plazako merkatu txikia... Gainera, elikagaien kontsumo burujabe eta arduratsuaz sentsibilizatzen gaitu burutzen dituen ekimenen bidez.

Bi esparru nagusi horiek uztartu zaizkio asmo berriei, eta horrela sortu da "LURRA, LANA, JANA" proiektu integrala.

Proiektuaren helburuak, hurrengoak: lan egonkorra sortzea nekazaritza arloan, modu agroekologikoan, hau da, eragin txikia duena ingurumenean; ekoiztutako elikagaien kantitate eta kalitatea handitzea; hondakin kudeaketa hobetzea, eta herriko ekonomia eta merkataritza indartzea. Hona, 2016an burututakoa.

Lehenik eta behin, proiektuaren zabalkundea egin da: Udala, eskola, baserriarrak, merkataria, lur-jabeak eta baserriargaiak elkarrizketatu eta informatu dira; San Isidroan aurkezpen publikoa egin zen, eta urriko azkoan, berriz, "GURE LEIHOTIK" bideoa aurkeztu zen, baserriar izandakoen memoria goratzeko eta euren lanari, lehen ez eze, gaur egun ere balioa emateko sortua.

**Lurra, lana, jana. Proiektuak  
2016an zer ekarri digun kontatu  
gura dizuegu hurrengo lerrootan,  
bai eta gerora begira dauzkan  
asmoak ere.**



Bigarrenik, ekoizpen agroekologikoa bultzatzeko ekintzak burutu dira. Aparteko garrantzia hartzen du erabiltzen ez diren lur emankorrak, askotan sasiak janda, atzera ere erabilgai jartzeak: litzekoen lau solo aztertu dira, baina oraindino ez da lortu bat bera ere alokairuan jartzerik. Eta lastima da, ze egon badago baserriar berri bat beharrezko hasteko prest. Baserriko konpostaz, osterak, emaitza onak: hiru baserriar dabilta egonkor beharrezko, bi elikagaiak ekoizten dituztenak eta hirugarrena basogintza agroekologikoa lantzen duena; gainera, konposterako beste gune bat egin da Alaio auzoan. Garbi dago: hau ez litzateke posiblea izango, hondakin organikoak bereizi eta, baserriarrek hartzeko, astean hirutan etxe azpian uzten dituzten 200 herritar horiek barik. Bihoakie haiei guztiei gure esker ona.

Eta aurrerantzean, zer? Asmoa da 2017an proiektuari jarraipena ematea aipatutako arlo guztietan. Baserriarren arteko elkarlana sustatzea. Konpostajen parte hartzen duten etxe kopurua 300era igotzea, udal eraikin guztiak ere bai. Bertoko produktuen eskaera handitzea, adibidez, jatetxeak-eta hornituta. Lur eta baserriar berriak erakartzeko. Eta, azkenik, proiektu barri bat, herritarrok herrian erostera bultzatzea helburu duena: herriko txanpona zirkulazioan ipintzea.

## LARRABETZUK INGURUMENEAN DAUZKAN ERRONKAK.

- **HONDAKINEN BIRZIKLAJEA** %50era handitzeak, Eropako arauak eskatzen duen moduan, guztion laguntza eta konpromisoa eskatzen du. Ingurune garbiago eta osainsuago bat lortzeko neurrietako bat esku-eskura daukagu etxean bertan hondakinak ondo sailkatzen ba-